



Lana / La obra

Estatu Batuetako hegoaldeko doinuak biltzen ditu Kate Chopinek ipuinotan. Mississippi ibaiaren ertzek kulunkatzen dituzten ezinezko maitasunak, Natchitoches inguruko kotoi soroek gordetzen duten memoria lazgarria. Nabarmen dakartza garaikideak izan zituen emakume, txiro, natibo eta esklabo ohi beltzak. Eta duin, betiere duin, haien borondate eta desirak. Desira baita haien bizitzen, ipuin hauen eta Louisianako doinu ederrenen haria.

Fitxa teknika / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Ekaitza eta beste 34 ipuin**

Egilea / Autor: **Kate Chopin**

Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 181

ISBN / EAN: 978-84-9109-783-9

Salneurria / Precio: 20 € [BEZ barne – IVA incluido]

Orri kopurua / N° páginas: 384

Formatua / Formato: Rustika / Rústica – 13 x 19,5 cm

Materia: Helduentzako literatura – Literatura para adultos



Egilea / Autora

Kate Chopin (AEB, Missouri, Saint Louis, 1850-1904). Amaren aldetik jatorri frantsesekoa, aitarenetik irlandarrekoa, giro elebidunean hazia. Ezkondu eta Louisianako plantazio giroan bizi izandako urteek arrasto sakona utzi zuten bere obran. Lehenengo nobelan (*At Fault*) dibortzioaren gaia jorratu zuen. Ez zuen aurkitu inor bigarrena (*Young Dr. Gosse and Théo*) argitaratzeko prest, eta, gerora, suntsitu egin zuen. Hirugarrena izan zen bere nobelarik ezagunena (*The Awakening / Esnatzea*). Kritikari gehienek oso gogor hartu zuten, eta *morboso*, *desatsegin*, *kaltegarri*, *lizun* eta *pozoitsutzat* jo. Balio literariorik aitortzen ez ziotela ikusirik, ipuingintzari lotu zitzaion ia eksklusiboki. Egun, idazle klasikotzat eta literatura-mugimendu feminista modernoaren aitzindaritzat hartzen da.

Itzultzailea / Traductor

Joxe Mari Berasategi Zurutuza (Zegama, 1955). Ingeles eta Euskal Filologietan lizentziaduna. Beasaingo Lizeoan irakasle; euskara teknikari Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko NOLEGA atalean; Euskara Zerbitzuen buru Arabako Foru Aldundian. 2018an hartu zuen erretiroa. Ingelesetik itzuli ditu R.K. Narayan, H.R. Wells eta Angela Y. Davis; alemanetik, Peter Handke, Marliese Arold eta Leo Perutz; & & Frantsesetik, Maryse Condé.